



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Esan bezala, gure enpresan leasing-en bidez makinak alokatuko ditugu, hauen bidez plastiko bilketa erraztu eta honetarako birziklatze prozesua sustatuko dugu, enpresa desberdinen partehartzearekin.

Leasing enpresa baten bitartez zenbait baliabide eskuratzea lortuko dugu. Baliabide hauek desberdinak izango dira nahiz eta guztiak beharrezkoak izan. Lehenik, finantza-iturriak aztertu ditugu, eta gure artean diru-kopuru bat jartzea erabakitzeaz gain, diru-laguntzak eskatzea adostu dugu. Diru laguntzen artean hauek izan dira gure proiekturako egokiak iruditzen zaizkigunak. Gainera, leasing enpresa gure proiektua aurrera eraman ahal izateko gure makinaren ekoizpenaz arduratuko da, eta horrez gain, denbora bat igaro ostean, makinak erosteko aukera emango digu.

- http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6973&idioma=EU&dpto_biz=8&codpath_biz=8%7C5526%7C6973

» Diru-laguntzaren zenbatekoa

- Diru-laguntzaren zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da entitate onuradun bakoitzeko. Prestakuntza-ikastaroa eta aholkularitza egin ez duen baina Dekretuan ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituen bazkide edo sustatzaile bakoitzeko 2.000 euro igo ahalko da zenbateko hori; gehienez ere, bost bazkide edo sustatzaile.
- Eskatzaile bakoitzak gehienez 15.000 euroko diru-laguntza jasoko du.

Inbertsioetan aurreikusten dugun diru totala 68,007.27 € koa da. Honetan sartzen da lehenengo urteko **makinaren alokairua**, **ordenagailu** baten erosketa eta makinaren garapenerako **ikerketak**.

Gehienez, web-orrian jartzen duen bezala, **diru laguntzen** bidez eskatzaile bakoitzak 15.000€ eskatzeko ahalmena izango du. Ondorioz, 75.000€ eskatu ahal izango ditugu guztira, izan ere, bost bazkide gara proiektuan arituko garenak. Baina

diru laguntza totalatik 50.000€ eskuratuko ditugula aurreikusten dugu, beraz finantzazio iturri desberdinak erabiliko ditugu. Horrela, 18007,27€ behar ditugu oraindik, honen aurrean, erabaki dugu gutako **bakoitzak** (5 bazkide izanda) **1000€** ko kantitatea jartzea. Azkenik, beharrezko diru guztia lortzeko 13,007.27€ **crowdfunding** bidez eskuratuko ditugu.

BEHARREZKO INBERTSIOAK 1.URTEAN	EUROAK
Makinaren alokairua	65,207.27 €
Ordenagailua	800.00 €
Makinaren garapenerako ikerketak	2,000.00 €
BEHARREZKO INBERTSIO TOTALA	68,007.27 €

EKARPENEN ITURRIAK	EUROAK
1.BAZKIDEA: Maialen Garcia	1,000.00 €
2.BAZKIDEA: Josu Montelio	1,000.00 €
3.BAZKIDEA: Ainhize Garai	1,000.00 €
4.BAZKIDEA: Nicole Delaney	1,000.00 €
5.BAZKIDEA: Lur Etxebarria Bizkaiaiko Foru Aldundia (diru laguntza)	50,000.00 €
CROWDFUNDING	13,007.27 €
LORTUTAKO FINANTZIAZIOA	68,007.27 €

- https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/GE_AYUDAS?LG=E&ML=EMPMEN2&MS=Bc

Horrez gainera, baliabide fisikoei dagokienez, makinak gordetzeko biltegia



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

beharko dugu eta enpresa baten kolaborazioa beharko dugu gure produktua garraiatu ahal izateko. Kolaboratzailea Lantegi Batuak izatea erabaki dugu.

- <https://www.lantegi.com/>
- <https://www.idealista.com/inmueble/81330448/> (alokairua)



Gure giza

baliabideak Leasing enpresak osatuko du gure behar guztiak asetuz, ez soilik makinei dagokionez, izan ere, arazo bat egonez gero, leasing enpresa arduratuko da haren konponketaz.

Gure taldeko kideok zenbait esperientzia eta abilezia ditugu, Josu esaterako, oso ona da teknologien kontuak administratzen. Lur berriz, matematika eta aurrekontuak kudeatzen ibili da. Maialen proiektua egituratu du, zenbait oinarri finkatuz. Ainhize kontaktu asko ditu eta horrek zenbait proiektu ezagutzeak ahalbidetu digu. Eta azkenik, Nicole, sormen asko izan du gure proiektua aurrera eraman ahal izateko ideiak etengabeki botaz.